KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkarixa
2021eko maiatza - 216 zkia.

ARTISAU-
ARRANTZA
JARDUNALDIAK

GERRA AURREKO
EMAKUME ABERTZALE
HAREK

SAIOA
LIZARDI FERNANDEZ
PANAMAN

ZIRIAKO ANDONEGI
IPUIN LEHIAKETA

MUTRIKUKO
KULTURARTEKOTASUN
ETA
ELKARBIZITZA TALDEA

Errietan



ZUZENEKO KONTZERTUAK
JOTZEKO EGARRIZ


GARAI ZAIL HONETAN
KONEKTATU ZEURE
BURU ETA EMOZIOEKIN
GOZATU, ERLAXATU, SENTITU,
DIAMOND WELL-LIVING EXPERIENCE
TRATAMENDU BERRIAREKIN
& IZAN APAIN
apain
DOMINGO IBAIBARRIAGA, 3 BEHEA - 20830 MUTRIKU - 943 60 42 29 / 608 684 416 - APAIN@APAIN.NET


lea artibai
ikastetxea
Batxilergoa
MARKINA-XEMEIN
Lanbide Heziketa
ATE IREKIAK APIRILAREN 17an
ERDI MAILAKOAK
BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK
(iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
MANTENTZE-LAN LEKTROMEKANIKOA
GOI MAILAKOAK
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
MEKATRONIKA INDUSTRIALA
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA
AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA EGUZKI ENERGIA TERMIKOA
ZATOZ!
Osasun-baldintzak bermatzeko aforo mugatuak egongo dira. EMAN IZENA!
info@leartik.eus
www.leartik.eus
94 616 90 02

Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA
OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00

Botikak

Lasuen-Elezgarai ..... 943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz ..... 943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar) 943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa ..... 943 60 70 48 /679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Partzuergoa 902 30 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 60 36 75
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua 943 60 35 45
Kardala Akuakultura Institutua 943 60 71 37
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 944 333 333
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87

Iritzixa

Garbiñe Garagarza Lekube

HITZ HUTSAK BAINO GEHIAGO

Ditxosozko pandemia. Barrenak modu oso ezberdinetan, behin eta berriz, astindu dizkigu. Baita kezka eta buruhauste ugari ugari sortu ere.

Kezka horien artean, bada bat aspaldian barruan buelta ka dabilkidana: hitzei ematen diogun esanahia eta erabilera. Azken egunetan, berriro ere, presente dudan kezka da gainera, adierazpen askatasuna edota askatasuna bezalako kontzeptuak zertarako geratu diren ikusita...

Hala ere, azken urte eta erdian gehien entzun dudan terminoa elkar zaintza izan dela esango nuke.

Eta ez dakit zuek ZAINTZA zerrekin lotzen duzuen, baina sarritan iruditu zait zaintza eta kontrolaren arteko muga alde batetik bestera gurutzatzeko ez daukagula inolako konplexurik.

Baina zein litzateke muga? Zerk elkartzen eta urruntzen ditu bi termino horiek? Kartzelero batek presoak zaintzen ditu ala kontrolatu? Eta erizain batek? Pazienteak zaindu ala pazienteen kontrola eramaten du? Eta guk, kalean gaudenean, zein jokabide hartu dugu pandemia luze honetan zehar? Eta orain zein? Elkar zaintzak ez al luke elkarren ongizatea bilatzearekin lotura eduki behar? ...

Galdera asko, eta erantzun gutxi.

Hitza definitzeak mugak argitzen laguntzen duela esango nuke. Niri neuri, Miren Amurizari irakurritakoa iruditu zait definizio onena: "Zaintzea da elkar babestea, beti ere, ito gabe batak bestea".

Hitz gutxitan, egoki eta dotore esatearen artea daukate bertsolariek, dudarik gabe. Eta gehituko nioke, baina ez pandemia garaian soilik... Zer diozue?







www.lurraldebus.eus 900 300 340 (08:00-20:00)

astelehenetik ostiralera

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00	
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25	
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30	Debaraino (20:40)
Donostia	*7:55	11:30	14:30	19:30	---	*Unibertsitatetik

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	8:00	11:00	*14:30	18:00	20:30	*Unibertsitatetik
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20	
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05	

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	22:05
Eibar	6:10	7:05	orduro	21:05	21:45	22:15
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:10	22:30
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25
Deba	6:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10	19:10	20:10
Deba	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40	19:40	20:40
Deba	9:15	11:15	13:15	16:15	18:15	---	---
Mutriku	9:25	11.25	13:25	16:25	18:25	---	---

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

neguko ordutegia irailaren 1etik

DB03 LEKEITIO-DONOSTIA

Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00	
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25	
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30	
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:40	

DB03 DONOSTIA-LEKEITIO

Donostia	10:30	14:30	17:00	20:30 (ig)	21:00 (lr.)
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	22:00
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35

(ig) igande eta jai egunetan
(lr.) larunbatetan

DB04 ONDARROA-MALLABIA

Mutriku	(lr.) 7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	(lr.) 22:15
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:30
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---

DB04 MALLABIA-ONDARROA

Mallabia	---	7:45	orduro	19:45	(lr.) 20:45	(lr.) 21:45
Eibar	---	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00
Mendaro	---	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35
Mutriku	---	8:55	orduro	20:55	(lr.) 21:55	(lr.) 22:55

DB05 MUTRIKU-ZUMAIA

Mutriku	8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10

DB05 ZUMAIA-MUTRIKU

Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	(lr.) 22:10
Deba	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Deba	10:15	12:15	14:15	16:15	18:15	20:15	23:15
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23:25

DB06 ONDARROA-SORALUZE

Mutriku	(lr.) 9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40

DB06 SORALUZE-ONDARROA

Soraluze	(lr.) 8:40	10:40	12.40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20

www.euskotren.eus

Bilbo - DEBA - Donostia

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Bilbo		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	9:29	22:29
Donostia	7:38	9:38	22:38

Donostia - DEBA - Bilbo

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
Donostia	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:
www.kalaputxi.eus

Gure “OBI-TXIKI”, Oroituz eta Eskertuz

Kexatzeko inork baino motibu gehiago izan arren, bizitzari beti adorez, baikortasunez eta duintasunez erantzun diozulako. Eta oraindik ere garrantzitsuago dena, ingurukoei eta beharrean aurkitzen zirenei, ixil-ixilik, beti laguntzen aritu zarelako.

Horregatik, hainbeste kexatzen garenok, inoiz ez dugu ahaztuko urte luze hauetan erakutsi diguzun duintasuna eta eramana. AGUR eta OHORE eta “gugan bedi zure eredu bikaina!”.

“Obi-Txiki”, kuadrilla guztiarentzat, ejenplu HAUNDI!



BUELTAN DA TXANTXANGORRI

Denbora luzea egon gara gure Txantxangorria ikusi gabe, iritsi den birusa dela eta ezin izan du bere habiatik irten. Hala ere, bere etxetik gure ondoan egoten jarraitu du, beti ere jolasteko eta guk ondo pasatzeko ahaleginak egiten.

Joan den apirilean, habiatik irteteko aukera izan zuen, a ze poza! Aste Santuetako oporretan Mutrikuko txikienekin (eta ez hain txikiekin) batera ondo pasatzeko eguntxo batzuk hartu eta horientzako ekintzak prestatu zituen.

Haur hezkuntzako haurrentzat ikuskizun bat aurrera eramatea lortu zuen. Piratak gure herrira ekarri zituen eta hurbildu zirenek altxorra bilatzen lagundu zioten. Musika eta dantzaz bete genituen Miruaitz frontoia eta guztion gorputzak!

Lehen hezkuntzako gaztetxoentzat proba desberdinak proposatu zituen; aspaldi ikusi ez genuen Txantxangorria aurkitzea izan genuen helburu. Erronka guztiak bete eta Mutrikuko txoko desberdinetan zehar ibili ginen elkarrekin.

Berriro gure artean egon ondoren, bere habiara bueltatzeko ordua iritsi zaio. Hala ere, argi dauka oraingo honetan ez dela horrenbeste denbora etxean egongo. Pozez hartu dugu bere erabakia, eta zuek?

Ba adi, uda gerturatzen ari da! Laster izango dugu berriro ere Txantxangorriaren berri. Badator guregana beste urte batez, guztiok ilusioz betetzeko asmoz!





Argitaratzailea
Karenka Komunikazio Elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku
Tel. 635 748 393
e-posta kalaputxi2001@gmail.com
Webgunea: www.kalaputxi.eus
Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak
Iñigo Andonegi,
Josu Larrañaga
Tirada 2.200 ale
Lege Gordailua SS-787/01
ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI
Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak Mutrikuko Udalaren dirulaguntza jasotzen du:

Mutrikuko Udala

ARTISAU ARRANTZA jardunaldiak

Udal Garapen Sailak antolatuta, apirilaren hamabostean, Artisau Arrantzaren Inguruko Jardunaldiak izan ziren Zabieleko areto nagusian bi zatitan banatuta. Lehenengo hitzaldia AZTIko Estanis Mugerzak eskaini zuen "*Euskadiko artisau arrantzaren ezaugarritzea, ikuspuntu ekosistemiko batetik abiatuz*" tituluaz. Bigarrena "*Eguneroko artisau arrantza, portutik herritarren saskira*" tituluarekin, BIZILUR taldeko David Lopategi eta ONDARROA 12 MILIA taldeko Aitor Leiza arduratu ziren azaltzen. On-line jarraitzeko aukera ere izan zen.

"Azti Fundazioa" 1997ko abenduaren bukaeran inskribatu zen Euskal Autonomi Elkarteko Fundazioen erregistroan. Bere helburua "Nekazaritzako elikagaien, itsasoaren, ingurugiroaren zientziak eta, oro har, natur baliabideekin eta ingurugiroarekin lotuta dutenak ikertzea eta aztertzea". Ikuspuntu horretatik abiatu zuen bere hitzaldia Estanis Mugerzak, hiru puntutan sakonduz.

Artisau arrantzaren ezaugarriak

Definizio ezberdinak erabiltzen dira artisau arrantzaren ezaugarriak adieraztean: kostal arrantza / arrantza tradizionala / eskala txikiko arrantza / tokiko arrantza... Definizio komunak ez egotean, sektorearen kudeaketarako eta politika espezifikoak aplikatzeko orduan zailtasunak sortzen dira, eta Europar Batasunetik datozen dirulaguntzak jasotzerakoan, eztabaida ugariak erakundeen artean.

FAO (Nazio Batuen Erakundeak) adibidez: familia unitateak / arrantza tradizionala / energia txikikoak / tokiko kontsumorako / irteera laburreko... edo antzeko definizioak erabiltzen ditu. Europar Batasuneko komisioetan, ostera, 12 metrotik beherako luzera dutenak eta arraste-arrantza erabiltzen ez dutenak —kasu honetan Mutrikuko "Elenita" ez zen sartuko artisau arrantzaren sailean—. Guk, "Azti" bezala, zioen Estanisek, 15 metrotik behera duten ontziak sartzen ditugu artisau arrantzaren sailean, salbuespen bat edo besterekin aktibitatea eta erabiltzen duten arteak kontutan izanda.

Huskeriak direla ematen badu ere, eragin handia dute eztabaidarako mahai inguruetan.

Artisau arrantza flotatik jasotzen dituzten datuak

Zenbat ontzi ari diren lanean

• 64 eta 70 ontzi artean dabiltza gure kostan nahiko egonkortasunekin. Porturik garrantzizkoenak Pasaia (12 ontzi) eta Bermeo (10 ontzi) dira.

Salmentak (2019ko datuak)



• Guztira 2.200 Tona (Bermeon 600 tona eta Pasaian 350 Tona). Esan behar, datu hauek Euskal Autonomi Elkarteko portuetan hartuak direla, nahiz eta jakin, Kantabriako portuetan ere izaten direla salmentak, berdelenak batik bat.

• Salmenten %80 berdela eta atunak betetzen dute (57 eta 22ren proportzioan). Atzetik legatza eta aingira dira (26 eta 16ko proportzioan), atzerago zapoa.

Modalitateak

• Urtean zehar arrantza motak aldatzen joaten dira txalupa gehienak, sareak, amua, kaiolak..., sasoiaren arabera.

Nolako ontziak

• Azken urteetan inbertsio oso gutxi egin da ontzietan. 6-31 urte bitartean daude, baina %65ek 14-20 urte artean, eta %90ek hamalau urte baino gehiago dituzte.

Tripulazioa

• 120 tripulatzaile dira guztira. Batez besteko

OKILA S.L.
SUKALDEKO ALTZARIAK
EBANIZTERIA
OKILA AROZTEGIA S.L.
Txirritxa - Mutriku
Tel. 943 60 40 18 - Faxa: 943 60 31 03

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

2 lagun ontziko, berdelaren sasoian 4ra igotzen da.

Dena den, arazoak dituzte datuak jasotzeko orduan. Industrial flotaren datuak kalitate onekoak badira ere, artisau flotarenak, mundu mailan %80ko inpaktua izan arren, ez dira maila berekoak. Eta horrek, garrantzizko ondorioa du erabaki politikoak hartzerako orduan. Salmenta orriak hartzen dira datu ofizialtzat, eta horiek doaz zuzenean Europara bidean, errealitatearen oso bestelakoak.

Datu horiek errealagoak izan daitezen, bilera eta inkesten bidez laginak hartzen dituzte portu bakoitzean, baina, nola bitartekoak aurrekontuen araberakoak diren, oraindik asko hobetu beharra dago. Teknologia berriekin asko aurreratu dute datu jasotze hori. Egun, abian da ontzi bakoitzaren nondik norakoak jasotzen dituen sistema, baina arrantzaleentzat gustukoa ez denez, edonork egin dezakeelako jarraipena, tabletak erabiltzen hasita daude zenbait patroirekin adostu ondoren, datu gehiago eta zehatzagoak jasotzeko.

Proiektu batzuen emaitzak

Europako parlamentuak zuzentarauak ezartzen ditu, ondoren estatu bakoitzak bete beharreko lege bilaka ditzaten. Horregatik, zuzentarau horiek ezarri baino lehenago komeni da, datuak eskuan, eztabaidan parte hartzea, kaltegarri izango diren erabakiak saihesteko.

Egun, itsasoan beren interesak jartzen dituztenak gero eta gehiago dira: akuakultura arloa, energia berriztagarriak, kirol-arrantza, eta abar. Itsasoaren zaintza helburu duten estamentu ezberdinak ere ari dira joko horretan: itsas-zati edo arrain espezie batzuen alde arauak ezartzeko, edo arrantza politika bat ezartzeko. Horrela, Europan hartzen diren erabakiak era batekoak izan edo bestekoak, itsas-zati babestuak ezartzean adibidez, eragin handia izango du gure artisau flotak esparru horietan baditu bere lan-eremu garrantzizkoak. Zuzentarau horien atalak betetzeko, beste arau ezberdinak sortzen dira: kontrol ekonomikoa, harrapatzen diren arrainetatik zeintzuk lehorreratu, tamainak…

Horregatik, datu zenbat eta errealagoak izan, hobeto defenda daitezke arrantzaleen interesak Europan edo espainiar estatuan, honek negoziatzen baitu azkenean. Garrantzizkoa da jakitea ontzian non ari diren lanean, itsas-ondoan sor dezaketen eragina, karbono aztarnen emisioak, arrantza-bazterkinak, geldialdi biologikoak, errentagarritasun ekonomikoa…

Kontutan izan behar dugu, baita ere, zein mailatako ordezkaritza duen gure artisau flotak. Hirurehun erakunde daude itsasoaren inguruan lanean ari direnak; horietatik %70ek zaintzen dituzte arrantza interesak, eta beste %30ek beste interesekin dabiltza. Baina aipatutako %70 horietatik, soilik %18 dira artisau flota ordezkatzen dutenak -ordezkaritza oso txikia-

Aurrera pausoak ematen ari da artisau flota, gero eta kontzientzia handiagoarekin datuen garrantziaz jabetzen.

****

"**Ondarroa 12 milia**" 2012. urtean abiatu zen, Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat arrantzaleren ekimenez, eskaera zehatz batzuk luzatuaz kosta inguruko arrantza erabakietan ardura duten administrazioei. Hala nola: eremua erregulatu eta antolatzea, arrantza-lanabes batzuk debekatzea, aisialdiko arrantza berrikustea, artisau-arrantzaren salerosketak erraztea, bioaniztasuna zaintzea… 12 miliak artisau arrantzarako soilik baimentzea duten helburua ibili dira hedatzen eta arrazoitzen urte hauetan, bitarteko ezberdinak erabiliz.

"**Bizilur**" Lankidetzarako eta Herrien Garapenerako Elkartea da. Esparru internazionalista batetik jarduten dute begirada feministarekin, gizarte-mugimendua dute subjektu gai, eta Elikadura Burujabetza hartzen dute aldaketarako ortzimugatzat, merkatuaren espekulaziotik aldentzeko.

Aipatu bi elkarteek bat egin dute arrantzaren etorkizunaren alde lan egiteko "*Itsasoiko*" eratuz, eta artisau arrantzari eskaini nahi diote euren indarra.

Kezkaz beterik daude artisau arrantzaren gainbehera ikusirik. Azken hamarkadako datuak erabili dituzte, eta nabarmena da ontzi kopuruaren jaitsiera: batzuk portuetan geldirik eta beste zenbait Espainiako beste portuetara salduak. Arrantzaleen adina jubilaziotik gero eta hurbilago eta gazte jendeak beste lanbide batzuk aukeratzen ditu. Hemendik bost urtera, zer? galdetzen dute. Horregatik heldu diote proiektu berriari.

Proiektuak hiru esparru ditu: Sentsibilizazioa, Politika publikoak eta Herriz herriko prozesu partehartzailea.

Lehengo esparruan, **sentsibilizazioan**, material didaktikoa erabiliko da. Elikadura ohiturak mantentzeko (produktu industrial gero eta gehiago kontsumitzen baita) hitzaldiak eta dokumentalak, eta zuzeneko eragina izan dezaketen kartelak izango dira arrandegietan, bertako artisau arrantzaren produktuak direla adieraziko duen ZIGILU berriarekin.

Bigarren esparruan, **politika publikoetan**, kostako udal guztiekin jartzen ari dira harremanetan, leku bakoitzean ekimenak sortzeko artisau arrantzaren alde. Mutrikun, jada, udalarekin batera hasi dute ekimen bat: herriko arrandegiekin adostu da bertako ontzien produktuak erosi eta salmahaien gainean jarriko dituztela, bertakoak eta egunekoak direla adierazten duen ZIGILUAREKIN.

Hirugarren esparruan, **herriz herriko prozesu partehartzaileak** garatu nahi dituzte, kontuan izanik herri bakoitzaren izaera eta egoerak ezberdinak direla. Mutrikuko Udala laguntza ematera prestatu da, eta, harremana duten mundu mailako *Daniel eta Nina Carasso Fundazioa*ren laguntza ekonomikoaz ere baliatuko dira. Datozen bi urteetan herritarrekin harremanetan maiz ikusiko ditugula diote.

Bukaera hiru esaldi trinko eta indartsurekin amaitu dute: *"Arrantzaleon sasoia da", "Garaiz gabiltza, eta, gutxienez, daukaguna mantentzen ahaleginduko gara", "Gure portuetan arrantzaleak ikusi nahi ditugu"*.



hitza
herriaren informazioa
herriaren hizkuntzan
herriaren zerbitzuan

KONPONKETAK PISTINAN

Udako denboraldirako bi hilabete aurretik pistinan konponketa batzuk burutu ditu Udalak, Eusko Jaurlaritzako Itsas Gaietarako zuzendaritzarekin adostuta. Izan ere, marea beheran pistinaren barruan geratutako urak ihes egiten zuen zabalera aldeko paretetik. Apirileko marea biziak apronbetxatuz, zuloak ixteko lanak burutu dira, pistinaren erabiltzaileek hondorako distantziarekin arriskurik izan ez dezaten.

Lanean hasita, pistinan egiteko zeuden beste lan batzuk ere burutu dira, arranplatik jaisteko eskaileak konpontzea, adibidez.





IZAN BIDEA, MENDI TONTORRETARAINO

Euskal preso, errefuxiatu eta deportatuen aldarria Euskal Herri osoko mendi tontorretaraino iritsi da, eta gurean ere Urkamendiraino eta Arnoraino hainbat mutrikuar mendizale igo ziren Sare herritarra elkarteak egindako deialdiari erantzunez. Adi egon hurrengo deialdiei!

KOSTAKO KOMUNA MARTXAN DA

Kostako bidea konpondu eta espaloia egin zenetik asko dira Ondarbeltzerainoko pasiera egiten duten herritarrak, baita kanpotarrak ere. Bost kilometro pasatxoko ibilbidean larritasuna gertatzea ohizkoa denez, komun bat faltan hartzen zen, eta dagoeneko ipini du udalak komun hori 60.000 euroko inbertsioa eginda.

Martxan ipini zenetik hilabete igarota, 459 aldiz erabili da komun autogarbigarria, gizonezkoentzat alboan dauden komunen erabileraz gain.







GARBIGUNEAREN ERABILERA

Azken hilabeteetan Mankomunitateak antzeman du garbiguneen inguruneak ordutegia errespetatu gabe eta bereizketa egokia egin gabe hondakinak botatzeko gune bihurtu direla, baita garbigunean utzi behar ez diren zaborrak uzteko guneak ere, esaterako, amianto-hondakinak.

Mankomunitatearen asmoa ez da zehapen-espedienteak irekitzea garbiguneak behar bezala erabil daitezen. Baina, egoera hobetu eta garbiguneak arduraz erabiltzen diren arte, garbiguneen kanpoan hondakinak uzten dituzten pertsonei isunak jartzen hasiko da Mankomunitatea. Hondakinak xede horretarako ezarritako guneetatik kanpo uztea arau-hauste oso larritzat tipifikatzen da hondakinak biltzeko zerbitzua arautzen duen Mankomunitatearen ordenantzan, eta, ondorioz, 1.750 eta 45.000 euro arteko isunak eragin ditzake.

Ia egunero, lehen orduan, Mankomunitateko langileek mota guztietako hondakinak aurkitzen dituzte, nahastuta, garbiguneen atarietan. Mankomunitateak gogorarazi du garbiguneen ordutegia 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara dela astegunetan eta 9:00etatik 13:00etara larunbatetan.



COVID-19 APIRILEKO DATUAK

Horitik gorrira naranjan zehar. Horixe izan da gure herrian apirilean covidak izan duen ibilbidea. Guztira, 50 mutrikuarrek eman dute positibo egindako *pcr* proban, eta haiekin batera beste hainbat izan dira isolatuta etxean geratu behar izan direnak.

Iazko abuztuaren (83 kasu) eta azaroaren (72 kasu) atzetik, apirilean eman dira kasu erregistratu gehien, eta horri lotutako inzidentzia tasa altuenak. Gauzak aurreko "olatuetan" gertatu den moduan badatoz, maiatza bukaerako datuak onak izatea aurreikusten da. Gainera, gero eta herritar gehiago hartzen ari den txertoaren eragina baikorra izatea espero da, eta hurrengo hilabeteetan "olatu" handirik ez ekartzea da helburua. Edonola ere, duela urte bete hasi genuen leloa kontuan izan dezagun: Zaindu dezagun elkar.



APIRILA — 50 positibo

			1	2	3	4
			0	1	0	1
			9	10	10	11
			169,36	188,18	188,18	207,00
5	6	7	8	9	10	11
1	0	3	3	4	0	0
10	10	13	16	18	18	18
188,18	188,18	244,64	301,09	338,73	338,73	338,73
12	13	14	15	16	17	18
4	2	4	1	2	2	2
21	21	23	24	25	27	28
395,00	395,00	432,82	451,64	470,46	508,09	526,91
19	20	21	22	23	24	25
2	1	2	1	5	0	2
29	30	29	27	28	28	30
545,73	564,55	545,73	508,09	526,91	526,91	564,55
26	27	28	29	30		
2	1	1	2	1		
28	27	24	25	24		
526,91	508,09	451,64	470,46	451,64		

kasuak	tasa
22>	400>
16	300-499
4	60-299
<3	<59

egunak
Covid-19 positiboak
*aurreko **14** egunetan metatuta*
100.000 biztanleko 14 eguneko inzidentzia tasa





Saioa Lizardi Fernandez

Panaman arkitektura lanetan

Beka batek eskainitako aukera hartuta, Ozeano Atlantikoa zeharkatu eta Panamara iritsi zen 2017. urtean; lau urte eta erdi beranduago, han jarraitzen du. *Kalaputxi*k berarekin hitz egiteko aukera izan du bertako bizitzari, ohiturei eta bere esperientziari buruz.



Saioa diseinu-zuzendari izandako proiektua, Guatemalan.

Nolatan iritsi zinen Panamara?

Arkitektura karrera bukatzean, segituan konturatu nintzen Euskal Herri mailan ez zegoela lan asko niretzat. Lortzen nituen lantxoek ez zidaten erronka handirik sortzen. Konturatu nintzen oraindik gazteegia nintzela lan egonkor baten bila ibiltzeko eta, gainera, ez zela erraza izango horrelakorik lortzea bertan geratuta.

Orduan, *Global Training* bekara apuntatu nintzen eta Panama izan zen aukeretatik gehien erakarri ninduena. Garapenean zegoen herrialdea zen eta bertan eskaintzen zidaten lan mota oso interesgarria iruditu zitzaidan. Beka hori sei hilabetekoa zen eta, denboratxo hori amaitu ostean, inoiz baino gusturago sentitzen nintzen bertan. Asko nenbilen ikasten eta momentuko arkitektura estudioak geratzeko eskatu zidan. Horixe egin nuen.

Eta nolatan erabaki zenuen bertan geratzea?

Denbora gutxira beste estudio batera aldatu nintzen eskaintza interesgarri bat izan nuelako. Lehenengo bi hilabeteetan ohartu nintzen horixe izango zela nire lantokia denbora luze batean. Lan interesgarrietan nenbilen murgilduta, lankideak familiatzat hartu nituen denbora gutxian eta nire nagusiaren eta estudioaren filosofia bat zetorren nirearekin.

Alderdi pertsonalean, Panamaz maitemindu nintzen segidan. Atlantikoa eta Pazifikoa ordu batera dauden herrialde bakarra izango da munduan (hortik bere kanala), hondartzak ikaragarriak dira, klima ona dago urte osoan, jende interesgarria, kultura ezberdinak eta oso esperientzia garrantzitsuak eskaini dizkit.

Ikasketa profesional eta pertsonal asko izan nituen lehenengo urteetan eta, nahiz eta herria eta familiaren falta handia somatu, banekien nire bigarren etxea aurkitu nuela.

Zenbat denbora daramazu bertan?

Konturatu gabe lau urte eta erdi egingo ditut uztailean. Ez nuen sekula pentsatu hemen geratuko nintzenik horrenbeste denboraz, baina lan interesgarriak suertatu zaizkit bidean eta lagun garrantzitsuak egin ditut. Ekintzaile moduan *branding* eta modarekin erlazionatuta dagoen sormenezko estudio bat sortu dut eta gogotsu ari naiz proiektu horretan lanean. Azkenik, maitasuna ere hemen aurkitu dut... Ez da hain erraza kondizio horiek izanda denbora luzeagoz ez geratzea.

Zer ezberdintasun edo antzekotasun ikusi duzu horko eta hemengo bizitzeko, lan egiteko eta erlazionatzeko moduan

Dena da ezberdina. Egunak pasako nituzke ezberdintasunak kontatzen! Lehenengo urte eta erdian turista modura mugitzen nintzen, eta lagun guztiak euskaldunak, espainiarrak edo frantsesak ziren (hasieran, kultura aldaketa oso nabarmena da). Tabernetara joaten ginen, astebururo hondartzara bidaiak egiten genituen eta ez ginen asko erlazionatzen hemengo jendearekin. Hemengo ohituretara egokitu gabe ibili ginen.



Momentu horretan ezberdintasun gehiegi ikusten nituen bi kulturen artean. Nire buruan, guztiak ziren matxistak, emakumeak ez ziren eta ez zuten nahi independenteak izan, beraien ametsa mutil on bat bilatu, lana utzi eta ezkontzea baitzen. Komunikazioa oso zaila iruditzen zitzaidan (ez dute zuzen hitz egiten, sekulako istorioak kontatzen dituzte ideia arrunt bat komunikatzeko).

Lan eta erlazio erritmoa ere guztiz ezberdina da. Biztanleriaren kopuru handi batek ez dauka kalitatezko hezkuntza bat izateko baliabiderik eta, askotan, txoke kultural handia izaten nuen arrazoi horiengatik ere,

Hemengo gehiengoa oso sinestuna da. Bikote erlazioak oso ezberdinak dira. Emakumeak rol bat betetzen du, gizonezkoak beste bat eta ez dute homosexualitatea ondo ikusten oraindik. Estigma asko daude. Herriak ez du protestatzen gobernuaren jarrera ustelaren aurrean. Ipar Amerika idealizatuta daukate eta ohitura txar asko bertatik datoz.

Hala ere, gutxinaka, lanetik kanpo Panama, Venezuela eta inguruko jendearekin gehiago erlazionatzen hasi nintzenean guztia aldatu egin zen niretzat. Gero eta gehiago ulertzen nituen beraien ohitura eta pentsamoldeak (behin beraien aurrekariak aztertu eta ulertuta). Jende interesgarria aurkitu nuen, anbizio eta interes antzekodunak, baita kultura eta ikasketa maila antzekodunak ere. Eta, pixkanaka, benetan klik egin nuen hemengo jende askorekin. Beste modu batera ikusten hasi nintzen jendea eta baita herrialde osoa ere.

Nola moldatu zara bertako bizitzara?

Behin hemengo jendea gehiago ulertuta, beraiekin gero eta gehiago erlazionatuta, errazagoa izan zen guztia. Saltsa pixka bat ikasi nuen, hemengo janarira moldatu nintzen, urte osoko beroa eta noizbehinkako zaparrada gogorrak maitatzen hasi nintzen.

Baina, batez ere, aukera interesgarri asko ikusten ditut orain. Herrialdea oso txikia denez (4 milioi biztanle guztira), jende asko ezagutzen dut jada. Errazak dira konexioak hemen; arkitektura estudioan zein independenteki sortutako "*esse*" deituriko enpresari esker erronka garrantzitsuetan murgildu naiz. Ez dut uste aukera hori izango nuenik Euskal Herrian edota Europan. Hemen ez dago horrenbesteko konpetentziarik eta proiektu interesgarrietan murgilduta egotea errazagoa dela pentsatzen dut.

Pandemiari dagokionez, zein da horko egoera?

Pandemia nahiko gogorra izan da. Hasieran, Panamako egoera oso txarra izan zen eta zazpi hilabete jarraian konfinatuta egon ginen. Ondoren, egun ezberdinak ezarri zituzten bai emakumezkoak eta bai gizonezkoak etxetik ateratzeko. Neurriak nahiko gogorrak izan dira denbora guzti honetan.

Nire enpresan 23 lankide ginen eta orain 5 gaude. Arkitektura, eraikuntza eta diseinuko lanak ikaragarrizko kolpea pairatu du, baina nik neuk ez dut arazo handirik izan oraingoz. Azken urte osoan etxetik egin dut lana eta aldaketa horri esker espero dut laster denboratxo luze bat pasa ahal izatea Mutrikuko kaleetan.

Orain momentuan txertaketa nahiko azkar doa eta denbora asko pasa da kasuak kontrolatuta daudenetik. Neurri bakarra gauerdian etxean egotea da.

Noiz aurreikusten duzu Mutrikura itzultzea?

Udan bueltatuko naiz baina soilik bisitan. Betirako bueltatzeko ideiarik ez daukat oraindik. Badakit gurasoak, familia eta lagunak nire ondoan nahi ditudala baina ez dakit noiz iritsiko den momentu hori.

Zeren falta somatzen duzu gehien?

Guraso, familia eta lagunena batez ere. Nire lagunen umeek ezagutu ere ez naute egingo, eta ideia horrek ez nau lasai uzten. Gehien faltan hartzen dudana, aipatutakoaz gain, Mutrikuko giroa da: jendez betetako kaleak, hizketaldiak, tabernak... (nahiz eta orain horrelako asko egon ez). Eta, amaitzeko, janaria. Moldatuta nago hemengo janarira baina aitak eta amak sukaldatutakoa bezalakorik ez dago hemen.

Itzultzen zarenean egingo duzun lehenengo gauza...

Ama eta aitarekin sukaldeko mahaian jarri eta orduak eta orduak pasa hizketan, arrain eder bat eta ardo kopa batekin. Gurasoekin ahalik eta denbora gehien igaro, baita anaia, gainontzeko familia eta lagunekin ere.

Errietan

ZUZENEKO KONTZERTUAK JOTZEKO EGARRIZ

Errietan talde mutrikuarrak estreinako diskoa kaleratu berri du; pop-rock giroko zazpi kantuz osaturiko lana. "Begiradak" kantua izan da taldearen arimaren leihoa, alegia, biluzten dituena.

Diskoaren aurkezpenaren aurretik, "Begiradak" kantua kaleratu zenuten. Nolatan kantu hori?

Zazpi kantuz osatzen da gure diskoa, eta kantu bakoitzak bere berezitasuna dauka; hasierako kantak estilo berekoak diren arren, bukaerako kantuetan aldaketa bat nabari da. Aurkezpenerako, berriz, kantu bat pentsatua geneukan, ordea, ez zen gure ustez egokiena; gure bilduma kantu horrekin identifikatzea ez genuen nahi. Beraz, "Begiradak" kantua aukeratu genuen aho batez, gure taldearen eta diskoaren izaera ere transmititzen baitu. Horrela, bideoklipa grabatzen hasi ginen Aritz Larrearen laguntzaz, eta sare sozialetara igo genuen.

Diskoaren aurkezpena ere egin duzue...

Herrian aurkeztea zen gure nahia, eta horrela egin dugu. Udalarekin hitz egin ondoren, Zabiel plazan azaltzea adostu genuen. Orain arte, kontzertuetan kantuen bertsio ezberdinak jo izan ditugu; aurkezpenean, aldiz, disko berrian zentratu gara. Eta, hortik aurrera kontzertu bat bestearen atzetik eskaintzea nahiko genuke.

Non eskuratu dezakegu diskoa?

Printzipioz, Mutrikun Lasuen-Elezgarai, Madariaga, Sabina, Aparra, Loretxu eta Zubixan eskura daiteke eta Ondarrun Gelasio eta Kulixkan. Eta, iada plataforma digital guztietan dago entzungai: Spotify, Youtube, Apple Music, Amazon Music... Bizi dugun egoera honetan, aurrean aipatutako bide horiek erabiltzea ezinbestekoa ikusten dugu, gainera, gure musika gehiago zabaltzeko erakusleiho handiak dira.

Non grabatu duzue? Eta, laguntzarik izan duzue?

Axular Arizmendi-k, AME estudioan grabatua eta nahastua izan da gure diska. Berarekin arlo teknikoa pulitzeko aukera izan dugu; asko lagundu digu hortan. Eta, talde moduan zein banakakoan hobekuntza nabarmena izan dugu. Hasiera batean, aste santuetako bi asteetan diska osoa grabatzea zen ideia, ordea, denboraz lehenago hasi ginen eta horrek lasaiago grabatzea eta hobekuntzak egitea ahalbideratu zigun.

Eta, kolaboraziorik izan duzue?

"Aske zatxugu matxe" kantuan, Zubixaren alde eginikoan, hogeita hamar bat lagunen kolaborazioa izan genuen. Horrez gain, zera aipatu nahiko genuke: disko honen grabaketa ezinezkoa litzateke Crowdfunding bidez parte hartu duten guztien laguntasunik gabe. Beraz, eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei.

Zenbat lagunek osatzen duzue taldea?

Zazpi lagun gara taldean: Amaia Arantzamendi "Mote" ahotsean, Maitalen Aranberria baxuan, Julen Ruiz saxoan eta ahotsean, Nahia Elesgarai eta Leire Elezgarai gitarran, Ainhoa Arreitunandia teklatuan, eta Iera Naberan baterian.

ERRIETAN izena, taldearen izena, nondik dator?

Taldean zazpi lagun izanik, normala den moduan gure gorabeherak ere izaten ditugu, noski. Dena den, Amaia eta Julenen arteko harremanetik dator izena, beti baitabiltza elkar zirikatzen eta errietan, baina oso harreman sanoa daukate.

Noiz eta nola hasi zineten? Norbaitek bultzatua?

Orain dela bi urteko, 2018ko Samikollako jaiak izan ziren gure abiapuntua. Bertako jai batzordeko kide batek gure taldekidea den Leireri egin zion gonbitea. Eta horrela elkartu ginen. Horrez gain, egun hartan norbaitek gure kontzertua ikusi eta, Ondarrura joateko deia jaso genuen.

Zein musika mota egiten duzue?

Egia esan ez daukagu oso argi, pixka bat denetik egitea gustatzen baitzaigu, baina zerbait esatekotan, pop-rock musika estiloan kokatzen dugu taldea.

Taldeko norbaitek idazten ditu kantuak?

Diskoko abestien konposizioan gehienbat Leire eta Julen ibili badira ere, guztiok jarri dugu gure hazia eta guztiok inplikatu gara. Eta, egia esan, konfinatuta egon garen garaia oinarrizkoa izan da kantuen sorkuntzan. Denbora tarte horrek sormena eta idazteko aukera eman digu. Hala eta guztiz, gehienetan taldekideen bizipen, esperientzia edota gertaeretatik sortzen dira gure kantuak.

Aurrera begira zein da zuen asmoa?

Zuzeneko kontzertuak jo nahi ditugu. Konfinamenduaren aurretik hamabi bat kontzertu genituen loturik, gainera, ordurarte ibili ginen eremutik kanpo. Adibidez, Eibarren, Beasainen, Aulestin... baina gauden egoera dela-eta bertan behera gelditu ziren kontzertu guztiak. Berriro jaiak antolatzen hasten direnean deituko gaituztela adierazi ziguten, ordea, izango al dugu ba jairik! Jaietan edota txosnetan ezin izango dugula jo argi daukagu, beraz, formatoa aldatu beharko: publikoa eserita, sakabanatuta eta espazioak ere, ez dakigu ba, aldatu beharko ditugu.

Zuzeneko kontzerturik egiteko aukerarik izan duzue?

Markinan Gaztetxeko urteurrenean egon ginen, Urrestillan, Astigarragan, Ondarrun bi aldiz, Mutrikun bertan hiru bat aldiz, bai, izan ditugu kontzertuak. Kantu bertsionatuak jo ditugu orain arte; jai giroan adin guztietako ikuslegoak eskertzen dituenak. Hiru hizkuntzatan eta adin guztietako ikuslegoarentzat. Estilo oso ezberdineko kantuak jo izan ditugu, eta jendea horrekin harrituta gelditzen da.

ERAIKUNTZAK
OLATZ S.L.
Igeltseritza orokorrean, Txalet, Erreforma...
Tel. 943 60 44 10 / 670 41 42 23 - 24
Olatz Auzoa, Urrestieta Baserria - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Ristorante AzkenEtxe
egurrezko labean egindako pizzak
italiar sukaldeko zapore guztiak
parrilladak · ospakizunak
(ezkontzak, familia-bazkariak, taldeentzako menu bereziak...)
egunero zabalik
943 60 34 39 · 688788693 · ristorante.azkenetxe@gmail.com · Kalbario gaina, Mutriku











energia berriztagarriak
eguzki energia
biomasa
geotermia
IZARRA
Iturgintza
berogintza
gasa
aire egokitua
MUTRIKU 943 603236
MARKINA-XEMEIN 94 6169759
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA 660 485 802

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

Gerra aurreko Emakume Abertzale harek (I)

Kontu jakiña da Mutrikun euskeriari eta abertzaletasunari eusten zakola. Baiña, hori ez zaku aillegatu edozela, neurri handi baten, gure ama, izeko eta amonei zor dixeu. Gerra aurreko kontuak dira, bai, baiña sasoi hartan egin zeuen lan fiñari esker frankismo beltza pasatu ahal izan genduan iparra galdu gabe. Emakume Abertzale Batzako andrazko anonimo harek monumentua merezi deue euskaltzaletasunaren eta abertzaletasunaren hazia ereitxen egindako lanagaitxik.

Hasierak

XX. gizaldixaren hasieran politikan gizonezkuak ziran nagusi. Alderdi guztietan emakumiak bigarren mailla baten zozen. Ez zaken botua emateko eskubiderik eta euren zeregiña famelixia eta laguntza (edo asistentzia) lanetara mugatzen zan.

Herri askotan, EAJko andrazkuek *Ropero Vasco* izenekuak bultzatu zitxuen premiña zaken herritxarrentzako erropia jaso, prestatu eta partitzeko.

1922ko martixan Irlandako Ambrose Martin O'Daly liderrak Bilbon emandako hitzaldixak EAJko girua berotu zoan. Irlandako Cumann na mBan emakumien alkartiaren berri ematiaz gaiñera azpimarratu zoan alderdi barruan eurak ere bazakaela zeresana, ez bakarrik famelixa eta etxeko kontuetan. Halaixe sortu zan, urte hartako maiatzian, *Emakume Abertzale Batza* (EAB).

Badirudi, lehelengo momentu hartan Mutrikun ez zala EAB talderik sortu. Emakume alkarte tradizionalagua ere sortu zan han eta hemen: *Emakume Azarri Bazkuna*. Tene Mujika debarra izan zan bultzatzaillia, baiña azken ekimen horrek oso eragin txikixa euki zoan.

1923ko iraillaren 2xan San Jeronimo eta Saturraranen euskal jaixa antolatu zeuen Mutrikuko eta Ondarruko abertzaliek. Mezia, dantzarixak eta erromerixia. Hitzaldixak ere bai, tartian Olano abizeneko batena. Arno Mendik honela eman zoan prentsan horren berri:*"Bere itzaldi geyena emakumientzako izan zan ba garbi azaltzen da emakumiak zer onura aundia ekarri leikioken gure Aberriari. Gogoratzen da Ondarrua ta Deba'n arkitzen diradela gaur ipiñita Emakume Azarri Bazkunak ta ots dagije mutrikuarrari ere gertatu ditzatela eurak ere onelako bat"*.

EAJren barruko bi korrontiak zozen atzian: "Aberri" taldekuak Emakume Abertzale Batzaren kasuan eta Komunionistak (CNV) Tene Mujikak sortutako bazkunen kasuan. Edozela ere, iraillaren 13an Primo de Riveraren estatu-kolpia etorri zan eta dana gelditxu zoan.

Errepublikako loraldixa

1931ko apirillaren 14an Espaiñian II. Errepublikia aldarrikatu zan, bixaramunian Mutrikuko Udalak beste horrenbeste egin zoan. Diktaduria amaitziaz gaiñera EAJri ezkututik erteteko aukeria eman zion Errepublikak, eta batzokixak eta bestelako biltokixak zabaltzen hasi zan herririk herri.

"Garbiñe" ezizeneko mutrikuar batek hauxe argitaratu zoan 1931ko urrixaren 28xan (*El Día* egunkarixan): *"Emakume Abertzale Batza. Asko ta asko dira bai neska gaztetxo ta emakume ezkonduak ere bertako egiñak edo izenpetuak, eta laister euren batzoki zabalkudea izango da. Dana izan dayala Jaungoikoa ta Lagi-zarra'ren alde"*.

Sasoi hartan Mutrikuko emakume batek baiño gehixok idazten zoan prentsan. Batez ere *Euzkadi* eta *El Día* egunkarixetan eta *Argia* astekarixan argitaratzen zitxuen herriko berrixak. Ezizenak erabiltzen zitxuen: Txitxo (Maria Lekube), Loretxu (Maria Piquer), Garbiñe, Krabeliñ, Pinpintxo...



Hau idatzi zoan "Txitxo"k zemendixaren 3an: *"Batzuk esaten dute emakumiak ez geradela politikan sartu bear geradenak, baña, ez al daki ori esaten dunak Abertzaletasuna ez dala politika, baizik maitasuna? Zein maite bear degu geure Ama bakarra ala ama ordezkoa?"*.

Mutrikuko emakume askok garbi zakaen: eurek ere modu batera edo bestera lagundu nahi zeuen, eta horretarako tresna egokixa izan zeiken herrixan EAB sortzia.

1931ko zemendixaren 8xan arratsaldeko 4,30etan Ametzaneko Batzokixan bi lagunek hitz egin zeuen. Miren Piquer "Loretxu" neskatillak eta Eibarko EABko Miren Lazkanok. Lehelenguak azpimarratu zoan aberri bakarra zakaela: Euzkadi. Bigarrenak, berriz, prentsaren arabera: *"dantzak eta geure oiturak azaldu zizkigun, baita ere zer egin biar degun benetako emakume abertzaliak izateko"*. Ondarruako Txori-Erreka korrenpontsalaren arabera *"Jaun-Goikua ta aberrija bijotzez benetan maite daben emakumiak"* ziran bixak.

Tranpakaleko lokala

Hillabete hartan zabaldu zeuen euren lokala Tranpakalian EABko emakumiek. Zemendixaren 15ian lehelengo zuzendaritza-taldia aukeratu zeuen: Juanita Piquer presidente, Maria Arratibel presidenteorde, Karmen Bullain diruzaiñ, Miren Lekube idazkari, Tomasa Arkotxa idazkariorde, eta batzarkidiak ere bai: Maria Bullain, Telesfora Basterretxea (Tele Txordo) eta Miren Arrieta.

Ordurako 84 bazkide zakazen Mutrikuko Emakume Abertzale

Batzak. 1932ko otsaillian, berriz, 120 emakume zozen izena emanda, eta maiatzian 134. Aurrerago, 150 bazkide izatera aillegatu zan.

EABko bazkidiak, jeneralian, gizarte mailla erdikuak ziran, famelixa euskaldunekuak eta gehixenek etxeko baten bat politikan sartuta zakaen (Batzokiko bazkidiak, zinegotzixak...). Mailla akademiko jakiñ bat ere bazakaen. Dan-danak ere ez ziran perfil jakin batekuak baiña oiñarrizko gauza baten bat egitxen zeuen: euskeriari, aberrixari eta erlijiuari garrantzi haundixa ematen zixuen.

Montalivet jauregixa XVIII. gizaldiko etxe dotoria da. Beheko pisuan botikia zauan eta aldamenian botikaixua eta haren famelixia bizi zan. Lehelengo pisuan egon zan Emakume Abertzale Batzaren (EAB) lokala. Balkoi luzeko pisu hartara sartu eta eskuin aldian areto edo sala haundi bat zauan. Antzezlanak eta hitzaldixak emateko eszenarixua ere jarri zeuen bertan, eta pianua ere inguratu zeuen nunbaitxetik. Pisuaren ezkerreko aldian, itsasora begira beste gelatxo bat zauan. Gaur egun "erabillera anitzeko aretua" edo zerbitzu askotarakua esago giñoke Tranpakaleko lokal horri.

Lokala zauken jabetzan EABkuek, errentia pagatzen zeuen. Nagusixa Bizkai aldian bizi zan eta, aldixan-aldixan, Markiña aldeko administradoria bialtzen zoan kobratzera.

Halako baten, inauguraziua

Emakume Abertzale Batzako lokala zemenditxik zabalik bazauan ere 1932ko San Isidro egunian inauguratu zeuen bihar dan bezela. Egun hartan "Euzko-Batzokija" eta "Arnope" Mendigoizale taldia ere inauguratu zitxuen eta, egunkarixetan agertzen zan bezela, *"[h]iru ikurriñen onespena"* egin zeuen.

Egun haundixaren bezperan, 1932ko maiatzaren 14an (zapatuan), arratsaldeko 8etan, kalejira egin zeuen Batzokiko txistularixen laguntzarekin. Ondoren, 8,30etan, EABko aretuan "Bost Urtian" izeneko hiru ataleko lana antzeztu zeuen. Sekulako txalo zaparradia jaso zeuen.

Maiatzaren 15ian *"Txistulari ta tuntunak goiz-eresi alai ta pozgarri bat jo zuten seiretan"*. Zazpiretan, meza ixilla eta jaunartzia. 9etan, kalejira herriko bandarekin. Ondoren, Emakume Abertzale Batzakuak, Batzokikuak eta Arnope mendigoizale taldekuak, beuren ikurriñak buru zirala, Meza Nagusira juan ziran. Erramun Laborda tenore ezagunak Perossiren bigarren pontifikala abestu zoan. Ospakizun jendetsu hartan hiru banderak edo ikurriñak bedeinkatu ziran.

Mezia amaitxutakuan, *"Emakume Abertzale-Batza ta Euzko Batzokia'ren onespena ta euron ikurrin jasotzea"* egin zan. Bitxartian, udal bandak *"Euzko Abendearen Eresekija"* jo zoan. 12xetan ezpatadantzia, eta ordu batian *"oturuntza Beko Enparantzako zumerdian"*.

Lauretan, hitzaldixak egon ziran: BBBko Elias Gallastegi eta Jesus Zabala, GBBko Policarpo de Barrena eta, aurrerago Lehendakarixa izango zan Jose Antonio Agirre. Azken horrek labur hitz egin zoan euri zaparradia hasi zan-eta.

Julene Urzelaik ere hitz egin zoan. Emakumien zeregiñak aitxatu zitxuan: euskal kantuak, dantzak, erropia (roperos) banatzia, euskeriari eustia... Miren Arantzazu Barrenak "Aizkorriren oñetan" (Luis de Jauregirena) olerkixa errezitatu zoan. Aurreikusitxa ez bazauan ere, entzulien artetik Lauaxeta idazlia azaldu zan eta hitz batzuk esan zitxuan. Azaldu zoan 1920. urtian Mutrikun egin zoan mitiña bertan behera laga bihar izan zoala, monarkikuen erruz. Baiña, 1932ko San Isidro egun haura ezberdiña zan. Abertzaletasuna zan nagusi.

Azken hizlarixa Mercedes Kareaga izan zan. Ondoren, berriz ere, *"Euzko Abendearen Eresekija"*.

Arratsaldeko 6etatik illuntzera arte euskal erromerixia: dantza eta dantza, txistu-danboliñen erritmuan.

Batzokixak eta Emakumien lokalak inauguratzen ziranian sekulako jaixak antolatzen ziran han eta hemen. Eta, jakiña, inguruko herrixetatik pozik hurreratzen ziran jai abertzale haretara. Euzkadi egunkarixan, Elgoibarko atalian, hola egin zoan Angel Osoro "Aberri" mutrikuarrak bere herrira juateko deialdixa, umore tantekin gaiñera: *"Emengo gazte ta zarren artian gar bizia dago igandean Mutriko'ra juateko; batzuk oñez ta besteak bultziz [trenez], ta ezin duanak zaldiz. Eibar'tarrak eurentzat biar ei-dabe tonelada bat antxoa. Bai mutilak, etorri; antxoarik ez bada, lapia izango dek-eta"*.

Ibilbide oparua euki zoan Mutrikuko Emakume Abertzale Batzak, 1931. urtian hasi eta zoritxarreko gerrak dan-dana zapuztu eta gelditxu zoan artekua. Beste behin ere gure emakumiek erakustaldi ederra eman ziguen. Emakumiak bigarren mailla baten jartzen zitxuan gizarte hartan ere, jakin zeuen euskeriaren eta aberrixaren alde egitxen, eta beti hain berezkua zaken adoria, ekimena eta umoria galdu gabe.

Hurrengo baterako utziko ditxugu emakume nekaezin harek egindako lanak: antzerkixa, hitzaldixak, ongintza edo benefizentzia, dantzak...

Emakume Abertzale Batzako andrazkuen lana ezagututa, iñoiz baiño zentzu handixagua hartzen diot Joxe Migel Barandiaranen esaldi honi: *"Izan ziralako gera, geralako izango dira"*.

Josu Larrañaga Arrieta



ZIRIAKO ANDONEGI mikroipuin lehiaketa

2021

.....HELDUEN MAILAKO IRABAZLEA.....

HAURREN BEGIRADA IRAKURTZEN IKASI ZUEN NESKA

Anuska Tena Peña



Harrerako herrialdean dena zen desberdina; pertsonen itxura, hizkuntza... Azal koloreagatik epaituta sentitzen zen ama, alaba ez. Bertakoa ez izateagatik baztertuta sentitzen zen ama, alaba ez. Amak ezin zituen herrialde berriko hitzak irakurri, alabak bai ordea; irribarreak estalita zeuden garaian, haurren begiradetan irakurtzen zituen bihotzetatik ateratako mezuak, xamur-xamurrak.

Amak Birmaniara bueltatu nahi zuen, alabak aldiz ez.

Aurrerago, alaba haurren begiraden esanahia itzultzen hasi zitzaionean, helduen begiradetatik desberdintzen hasi zen ama.

Amak Birmaniara bueltatu nahi izan zuen alabak haurren begiak irakurtzen erakutsi zion arte; zoriontasuna, berdintasuna, etab. islatzen zutela ulertu zuen.

Etorkizunean heldu guztien begiradetan berdina irakurriko duela sinesten du amak.

.....MUTRIKUAR ONENAREN SARIA.....

HARRIZKOA?

Joakin Larrañaga Arkotxa

Diabolo baten hegaldiak apurtu zion aginte hatzaparra Koxmeri. Txurruka-zaleek, Nepomucenoren almirantea hala ikusirik, bizkor aurkitu zuten izendun eskultorea istripua konpontzeko. Hatzapar berria ezartzean, inor ez zen konturatu azazkal azpian egindako zuloaz.

Hego-haizeak jo bakoitzean, haserre ikusten zitzaion kale-garbitzaileari plazako galtzada-harrien gainean agertzen zen marmol-tanta arrasto gogorra kentzen. Zer ote?

Epel zegoen gaua Laxaro tabernatik zanbuluka irten zenean zerura begira etxerako bidea izarretan aurkitu asmoz. Biribil-biribil eta irtenak gelditu zitzaizkion begiak Koxmeren hatzapar konpondua zakil baten antzera luzatzen ikusi eta isurketa zurixka jaurti zuenean. Gertakaria kontatu arren, nork sinistu ordu txikietan balantzaka ibiltzen zenari?

Kale-garbitzailearen haserreak jarraitu zuten.

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es



XARKEIren marmarketa

GOIZEKO IZARRA IKASTOLA

euskara jatorrean hobe

Lotu zutabe batekoak eta bestekoak:

a *eguaztena*	... osteguna
b *zapatua*	... igandea
d *barikua*	... asteartea
e *domeka*	... larunbata
f *eguena*	... asteazkena
g *martitzena*	... ostirala

gurutzegrama

1 Gaixotasun infekziosoa, eruptiboa, oso kutsakorra eta epidemikoa, bereziki umeengan agertzen dena. Birus batek sortzen du eta ezaugarri nagusia larruazaleko erupzio gorria da. Inmunitate iraunkorra uzten du.

2 Buruan kolpea hartu ostean ateratzen den koskorra.

3 Botatzearen onomatopeia.
Nik topatzen badet, ... eingo det zakarretara!

4 Apurketa adierazteko darabilgun onomatopeia:
Teink batetetik teink bestetik, azkenian .....!

5 Bere burua fenomenotzat daukanari esaten zaio:
Zein da bea, ..., eo?.

6 Gaixotasun kutsakorra, jatorri birikoa duena, umeengan agertu ohi dena eta larruazalean besikula gorriz osatutako exantema eragiten duena.



Erantzunak: 1 Elgorrixa 2 Tronpoillua 3 Ddu 4 Part 5 Hamalau 6 Astanaparrixa

txirritxa .com
SAR ZAITEZ GURE WEB ORRIAN ETA AURKI EZAZU PROMOZIO BEREZIAK!
Tel. 946 832 600
Gardotza Industrialdea, 3 > 48710 Berriatua > Bizkaia

Uzuri RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359

MUTRIKUKO KULTURARTEKOTASUN ETA ELKARBIZITZA TALDEA

2021eko martxoak herriko talde berri baten sorrera ekarri digu, hain zuzen ere Mutrikuko Kulturartekotasun eta Elkarbizitza Taldearena. Taldearen sorrera Udalak 2020. urte amaieran abiatu zuen kulturartekotasun eta elkarbizitza mahaia eratzeko parte hartze prozesuaren emaitza da. Martxotik hona, Zabiel Kultur Etxea bertako kideen bilgune bilakatu da, bertan hasiak direlarik lehendabiziko pausoak ematen herrira begira ekintzak prestatzeko.

Taldearen berri emateko, bertako kide batzuk elkarrizketatu ditugu, eta erantzunetan kulturen aniztasuna jaso dugu.

Norbaitek taldean parte hartzeko interesa badu eta zalantzak baditu, idatzi helbide honetara:

ongizate2@mutriku.net

Sandra Silvana Córdova Castro

Zergatik animatu zara taldean parte hartzera?



Kultura gehiago ezagutzeko interesak mugitu nau. Orain dela 30 urtetatik bizi naiz Mutrikun eta taldean parte hartu arte, ez dut izan harreman handirik herrian bizi diren gainontzeko kulturetako herrikideekin, eta aukera hau ezin hobea iruditu zait horretarako. Taldeak euskaldunen eta beste herrialde batzuetatik etorri garenon arteko saretzea bultzatzeko aukera paregabea eskaintzen digula uste dut, zubiak eraiki eta elkar ezagutzeko.

Txile



Mamadou Lo

Zergatik uste duzu Mutrikun beharrezkoa dela kulturartekotasun eta elkarbizitza talde bat sortzea?



Mutrikun atzerritik datozen pertsona eta komunitateek ez daukate herriko jendearekin harremanetan jartzeko aukerarik, ezta horretarako espaziorik ere; mutrikuarrekin euskara praktikatzeko guneak ere falta zaizkigu. Gure herrialdekoak diren festak antolatzea gustatuko litzaiguke Mutrikun eta mutrikuarrekin batera ospatzeko aukera izan. Elkar ezagutu eta topatzeko gune falta horrek zaildu egiten du guretzat herrian integratzea eta herrikideekin harremanak mantentzea. Gu gogotsu gaude, kontuan izanik gure begiradatik gizon euskaldunak lotsatiak direla, emakumeak dibertigarriak eta haurrak energia handikoak. Mutriku herri ederra da eta gustora bizi naiz hemen, eskertuta nago eta nire herria dela ere sentitzen dut, horregatik taldearen bidez dauden gabeziei erantzuna eman nahiko nioke.

Senegal



Karima El Harrak

Nortzuek parte hartzen duzue? Non eta zenbatero biltzen zarete?



Mutrikun bizi garen herritarrok hartzen duge parte. Herrialde ezberdinetako jendea biltzen gara, taldeak izaera anitza dauka eta horrek egiten du aberasgarri: Senegal, Bolibia, Txile, Paraguay, Nikaragua, Bulgaria, Euskal Herria eta Maroko, besteak beste. Martxoan hasi ginen biltzen eta orain arte izan ditugun bilerak Zabiel Kultur Etxeko Aretoan egin ditugu. Bilera bakoitzean erabakitzen dugu zein egunetan eta ordutan bilduko garen hurrengo, guztion agendak kontuan hartzen saiatzen garelarik, gehienok egon gaitezen. Gure arteko komunikazioa errazteko whatsapp talde bat ere sortu dugu. Taldea parte hartzaile berriei irekita dago, horregatik interesa duten mutrikuar guztiak bilera batera gerturatzera animatzen ditut.

Maroko



Latinka Rumenova Katsarova

Zer ekarpen egin dizu taldeak maila pertsonalean?



Taldearen osaeraren berri izan nuenean ederra iruditu zitzaidan espazio bat izatea elkar ezagutzeko. Nahiz eta Mutriku herri txikia den, ez da sortu espazio propiorik elkartruke kulturalerako eta, beraz, nahiz eta herri berean bizi garen, ez dugu elkarbizitzen. Taldeko kideei esker beste ikuspegi batzuk ezagutzeko aukera izaten ari naiz beraien bizi-istoriak entzunez eta ezagutuz. Testigantza batzuk entzutea oso gogorra egin zait eta beste errealitate batzuekiko begiak irekitzen lagundu dit. Aberasgarriena kaletik goazenean elkar begiratu eta kasu egitea da, harremanak maila pertsonalean sortzea.

Bulgaria



Kontxa Gutierrez

Zer uste duzu eskaini diezaiokeela talde honek Mutrikuri?



Taldearen bitartez herrian daukagun dibertsitate kulturala ikusgarri egin nahi dugu, herrian dagoen aniztasunari balioa emanaz. Gainera, beste herrialde batzuetatik datozen herrikideen bizitza-istoriak ezagutarazteak, bestearen lekuan jartzen lagunduko digula uste dut, enpatia landuz. Antiklasista eta antiarrazistatzat daukat neure burua eta horregatik taldearen bidez atzerritarrekiko dauden aurreiritzi eta estereotipoen kontrako lanketa pedagogikoa egitea beharrezkoa ikusten dut. Pertsona guztiok daukagu eskubidea libreki mugitzeko, eta baita beste herrialde batean askatasuna eta ongizate sozial zein ekonomikoa bilatzeko ere, eta mezu hori herrian zabaldu beharra daukagu.

Euskal Herria



Aldo Joaquin Gonzalez Barrios

Zer esango zenioke beste mutrikuar bati taldean parte hartzera animatzeko?



Mutrikuar guztiak animatzen ditut taldearen parte izatera, talde hau beste herrialde batzuetatik gatozenok herrian integratzeko tresna garrantzitsua baita. Migrazio prozesua bizi duen atzerritar bezala, garrantzitsua iruditzen zait herriko jendearekin nahastea, harremanak sortzea, eta baita herritarrek ni ezagutzea ere. Modu horretan bakarrik lortuko baitugu benetako elkarbizitza, eta horrek eramango gaitu beharrezkoa dugun inklusiora, aurreiritziak ezabatuz.

Paraguay



Kultura aniztasunaren astea

Egitaraua

Antolatzaileak: Mutrikuko Udala eta Mutrikuko Kulturartekotasun eta Elkarbizitza Taldea

Maiatzak 20

Hitzaldia: Inmigrazioari buruzko estereotipo eta zurrumurruak. Egia ote?

Hizlaria: Gorka Moreno Márquez.
Ikuspegi – Euskal Inmigrazioaren Behatokia. EHU.

Hizkuntza: elebia. 18:00etan Zabiel Kultur Etxean

Maiatzak 21

Kultur Aniztasunaren Mundu Eguna.

Maiatzak 22

Mutrikuko I. Kulturartekotasun topaketa

Maiatzak 23

Antzerkia Zabiel Kultur Etxean

ZORIONAGURRAKZORION



ENARA
Apirilean 6 urte haundi bete dituzulako, zure familiaren partez eta bereziki Nahiaren eta Ekaitzen partez Zorionak!



OIHANE
Zorionak! Maiatzaren 29an 8 urte!! Zorionak eta ia nola ospatzen degun! Muxu haundi bat Zia, Ani eta amona Begon partez.



LEA
Zorionaaaak! Ederki ospatuko degu lau urte handi betetzen dituzula! Matxo handi bat Nora eta Malenen partez.



KARLA
Zorionak politta! Maiatzaren 7an bederatzi urte handi egingo dituzu eta, muxuak etxeko guztien partez, bereziki osaba Iker eta amona Klaritan partez.



GAROA
Zorionak! Maiatzaren 29an 9 urte haundi!! Zorionez betetzen gaituzu! Mila muxu familiaren partez!



AIUR
Zorionak! 3 urte gure bizitzak alaitzen! Matxo haundi bat maitxe zaitxugun danon partez!



LAIA
Zorionak gure etxeko txiki bihurriari!!! 3 urtetxo gure bizipozak, mila patxito txitxirrii...



DANEL
Zorionak! Maiataren 3an 3 urte haundi bete dezulako. Danon partez, batez ere, Aner, Adei, Ibai, Enaitz eta Eberren partez.







Argazki Zaharrak



Saturraran Zahar baserriko Mateo San Martin, Etxebarri baserriko Ziriako Lekue eta Jose Manuel Olabe. 1960 urte inguruan

Idi parearekin hondartzatik hondarra ateratzen. Hondarra igeltserotzarako erabiltzen zen eta Kotxorroneko kamioian eramaten zen. Palakadaka, hondartzatik gurdira, gurditik lurrera eta lurretik kamioira.



Antxoeta sasoia 1960ko hamarkadan

FARMAZIA GUARDIAK 2021

2021	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	2021
Maiatza	4	4	2	2	2	2	1	1	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	2	2	3	3	3	3	4	4	4	2	Maiatza
Ekaina	2	2	2	1	1	1	4	4	4	4	3	3	3	1	1	1	1	2	2	2	2	3	3	3	3	4	4	4	2	2	2	Ekaina

EGUNEKO FARMAZIA GUARDIA ZERBITZUA / 9:00 - 22:00				
1	Hiart Burgoa	Deba	Astillero kalea 2	943 19 18 12
2	Amaia Zalduegi	Deba	Lersundi kalea 20	943 19 10 55
3	Lon Apraiz	Mutriku	Erdikokale 5	943 60 32 50
4	Lasuen-Elezgarai	Mutriku	Txurruka Tenienteak etorbidea 3	943 19 50 26
GAUEKO FARMAZIA GUARDIA ZERBITZUA / 22:00 - 9:00				
	Arantzazu Izpizua	Eibar	Ibarkurutze kalea 7	943 20 19 12

KULTUR ANIZTASUNAREN ASTEA

Maiatzak 20

Hitzaldia: Inmigrazioari buruzko estereotipo eta zurrumurruak. Egia ote?

Hizlaria: Gorka Moreno Márquez

18:00etan Zabiel Kultur Etxean

Maiatzak 21

Kultur Aniztasunaren Mundu Eguna.

Maiatzak 22

Mutrikuko I. Kulturartekotasun topaketa

Maiatzak 23

Antzerkia Zabiel Kultur Etxean

ZINEA



EKAINAK 6 - 19:00*
ERLAUNTZA

MENDI IRTEERAK

EKAINAK 20

Gorostapolo-Hautza-Izpegi

UZTAILAK 2, 3, 4

Linás de Broton (Pirineoak)

IRAILAK 12

Larla-Jarla ibilaldia

URRIAK 17

Elurretxe-Bianditz-Artikutza

AZAROAK 7

San Tirso

ABENDUAK12

Debako mendi inguruak

Urte zaharretako bazkaria

Burumendi Mendi Elkartea

kalaputxi2001@gmail.com
whatsappa 635748393
maiatzeko aldizkarian
argitaratzeko
maiatzaren 7rako
bidali zuen mezuak

ODOLA EMATEA 2021

Gipuzkoako Odol Emaileak

ekainak 25
abuztuak 20
urriak 22
abenduak 03

18:00etan

anbulatorio zaharrean edo jakinaraziko den tokian

EUSKALINPRI
Soluzio grafikoak • Soluciones gráficas

ZURE NEGOZIOA SUSTATZEKO BEHAR DUZUN GUZTIA

NURIA VÁZQUEZ
M.659 45 36 57
nuria.vazquez@euskalinpri.com

T. 943 19 20 36
info@euskalinpri.com

Irudi korporatiboa: logotipo
Logotipoa + eskuliburua
Argitalpen grafikoa
Katalogoak
Kartelak
Offset inprezio lana
Inprezio digitala

Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu

Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA

OPTIKA • AUDIFONOAK

ERRIBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • mvitoria@cnoo.es

MAIDERPINTO
estetika eta terapia naturalak

Kosmetika naturala eta ekologikoa!

Depilazioak · Pedikura-manikura · Gorputz eta aurpegiko tratamenduak · Pistola brontzeatzailea

Nahi al duzu uda honetan
azal osasuntsua eta polita erakutsi?

Zu zaintzea da gure helburua!

Barrenkale 9, behea · 20830 MUTRIKU · Tel. 650 341 768

CÓNDOR

Arrain kontserbak



ZIZZO BILLANTE HNOS. S.A.

Mijoa Industrialdea, P-21 · 20830 MUTRIKU (Gipuzkoa) Tel.: 943 60 31 41 Fax: 943 60 44 39

E
12.00.566/SS
C.E.